



LAN DEIALDIA

ANTZUOLAKO LANDA INGURUNERAKO DINAMIZATZAILEA

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Unibertsitate tituluduna, nekazaritza arloan esperientziarekin.
- Euskera: EGA, III H.E. edo horren baliokideren bat egiaztatzea.
- B-motako gida-baimena eta ibilgailuaren disponibilitatea.

HONAKO HAUEK BALORATUKO DIRA:

- Landa Ingurunearen Garapenari buruzko ezagutza.
- Lehen sektorean eta landa-garapenean lan-esperientzia izatea.
- Eskualdekoa izatea.
- Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak landa-eremuan eta lehen sektorerako dituen politikak, araudiak eta jarduera-programak ezagutzea.
- Proiektu-kudeaketan esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna, eta talde-dinamizazioan esperientzia izatea.
- Esperientzia eta formazioa baloratzeko, behar diren agirien bidez egiaztatutakoak onartuko dira soilik.

ESKAITZEN DA:

- URTE BETERAKO LANA, luzatzeko aukerarekin.
- LANARI BURUZKO FORMAKUNTZA.

KURRICULUMNA BIDALTZEKO EPEA: maiatzak 2, eguerdiko 14,00

**DEBA GARAIA Elkarte, Urteaga kalea, 21, 20570 BERGARA.
marikarmen@debagaraia.eus**



LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK ETA EGINKIZUNAK.

Zereginak:

- Antzuolako Landa ingurunearen baliabideak identifikatu, ekintzaileak eta proiektuak identifikatu.
- Antzuolako enprekin, Lehen sektorea bultzatzeko, enpresen erantzukizun sozial arloa landu.
- Baserritar eta lur jabeekin lehen sektorea bultzatzeko bakoitzaren parte hartzea identifikatu, (nekazal lurren gestioa, basoaren kudeaketa, makinaria konpartitzeko taldeak, komertzializazio taldeak....).
- Baserri inguruan lana egitea nahi duten ekintzaileak identifikatu.
- Antzuolako jatetxe, dendari eta beste eragile batzuen parte hartzea nolakoa izan daitekeen identifikatu.
- Beste esperientzia batzuk identifikatu eta Antzuolara nola egokitu aztertu.
- Antzuolako gizarteari ekimenaren berri eman eta euren parte hartzeko moduak identifikatu.
- Elkarrizketako gidoiak prestatu eta datu bilketa egin.
- Talde ezberdinen arteko koordinazioa landu, informazioa trukatzeko guneak, talde dinamikak, proiektuei lotutako lan taldeak sortu eta dinamizatu...
- Landutako gai guztiak txosten baten bildu, eta postuak berak dituen administrazio lanak egin.